




JASOKUNDE ANDRA MARIA ELIZA
B MAILA

J. ELOSEGI HIRIBIDEA 279



Ramon Cortazarren 1941eko handitze planoak
Egile eta data ezezagunak.

Deskribapena

Hegal eta patio irekiz osaturiko oinplano akademiko batean oinarriturik elizaz, komentuz eta eskola etxez osaturiko multzo neogotikoa. Komentuko eta eskola etxeke gelak klaustro baten inguruan biltzen dira, eliza, gorputz horren hegal gisa, Jose Elosegi hiribiderantz luzatzen den bitartean, L formako sarbide patioa osatuz. Orientazio honetan, elizaren buruaren aurretik iriteten den balkoia da eraikinaren gainerako ezaugarri neogotikoaren barruan nortasun handieneko elementua. Harlanduko fabriken eraikuntza kalitatea ere nabarmentzen da. Multzoan hainbat handitze lan egin dira. 1941. urtean Ramon Cortazarrek klaustroaren iparraldeko zatia proiektatu zuen. Lan horien ondorioz patioa itxita gelditu zen. Eta 1959an Juan M. Enciok eskolak emateko eta gimnasio gisa erabiltzeko pabilioia diseinatu zuen ipar-ekialdeko angeluan klaustroari konektatua.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako elementuak: 1959ko pabilioia.
 - B.- Elementu iraunkorrak: kanpoko eta barruko harlanduzko elementuak, elizako apaingarri kareberriak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak:
 - * Jasodurak ez dira onartzen.
 - * Elizaren nabearen barrualdea jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.